

## Xedapen Orokorrak

### EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIA

142

EDIKTUA, Aizkorri-Aratz aldeko Natur Baliabideak Antolatzeke Plana onartzen duen apirilaren 4ko 75/2006 Dekretuaren 7.3.5 eta 9.2 atalak zati batean baliogabe deklaratzeko dituen.

876/06 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan 2008-09-17an epaia eman zela jakinarazten da. Ilarduyako Administrazio-Batzordeak sustatu zuen errekurtsoa, hain zuzen ere Aizkorri-Aratz aldeko Natur Baliabideak Antolatzeke Plana onartzen duen Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 4ko 75/2006 Dekretuaren aurka (2006ko maiatzaren 19ko EHAA, 94. zenbakia). Epaia irmoa da eta bere epaitza honakoa da:

Plan horren agindu batzuk zuzenbidearen kontrakotzat deklaratu eta indargabetzea:

a) Aizkorri-Aratz aldeko Natur Baliabideak Antolatzeke Planaren 7.3.5 paragrafoaren bigarren atalaren azken idatz-zatiak honela dio:

«Parke Naturelean ez da baimenik emango kanpoaldeko lanak egiteko, obrak egiteko, ibilgailuak ibiltzeko, ez eta lur azpiko ustiapenekin lotutako azpiegiturarik ezartzeko ere. Salbuetsita geratzen dira administrazio eskudunek langileen segurtasun eta osasun arrazoiengatik eskatutako lanak.»

b) Plan horren 9. paragrafoaren 2. atalaren azken idatz-zatia:

«Kanpoaldeko eraginik gabe, lurpeko lanen bitartez meak ateratzea.»

Eta denek jakin dezaten ematen da esandakoaren berri, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/1998 Legearen (AAJL) 107. artikuluan xedatutakoa betez.

Bilbao, 2008ko urriaren 22a.

IDAZKARI JUDIZIALA.

## Disposiciones Generales

### TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DEL PAÍS VASCO

142

EDICTO por el que se declara la nulidad parcial del apartado 7.3.5 y 9.2 del Decreto 75/2006, de 11 de abril, por el que se aprueba el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del «Área de Aizkorri-Aratz».

Se hace saber que en el recurso contencioso-administrativo número 876/06 -promovido por la Junta Administrativa de Ilarduya contra el Decreto 75/2006, de 4 de abril, del Gobierno Vasco, por el que se aprueba el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Área de Aizkorri-Aratz (BOPV núm. 94, de 19 de mayo de 2006)-, se ha dictado sentencia el 17-09-2008, que ha alcanzado el carácter de firme, en cuyo fallo se ha acordado:

Declarar la disconformidad a derecho y anular como anulamos los siguientes preceptos de dicho Plan:

a) El inciso final del párrafo segundo del apartado 7.3.5 del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Aizkorri-Aratz, en el que se dice:

«Tampoco se autorizarán en el Parque Natural labores de superficie, obras, tráfico de vehículos ni instalaciones de infraestructura ligadas a explotaciones subterráneas. Se exceptúan aquellas labores exigidas por las administraciones competentes por razones de seguridad y salud de trabajadores y trabajadoras.»

b) El último párrafo del número 2 del apartado 9 del citado plan del siguiente tenor:

«la extracción de recursos minerales mediante laboreo subterráneo, sin afecciones a superficie.»

Lo que en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 107 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa (LJCA), se hace público para general conocimiento.

En Bilbao, a 22 de octubre de 2008.

EL/LA SECRETARIO JUDICIAL.